



MUNDU BAT ELIZATXON



Tren-geltoki ondoan
hasten den bidaiari
ortzadar koloreko
margoen usaian.
Bizi-poza sendotuz
nerabe garaian
zure mundutik denok
munduratu nahian.

**Etorkizun iturri, hori da garena
ttanttaka egiten den ikastolarena
Elizatxo eskola da, Leokako urarena
beti berdina izanik, ta berritzen dena.**

Bizitzan jasotako
kolpe eta muxu
Elizatxo, gurekin
bizitu dituzu.
Gure bizitzetako
lekutxo bat duzu
guk egin zaitugu ta
zuk egin gaituzu.

**Etorkizun iturri, hori da garena
ttanttaka egiten den ikastolarena
Elizatxo eskola da, Leokako urarena
beti berdina izanik, ta berritzen dena. (4 ALDIZ)**

LETRA: IÑIGO LEGORBURU

MUSIKA: KISTIÑE SOLANO ETA XABIER SOLANO

2017-2018 ikasturtea